Unibertsitate Antzerkia, 2021eko Antzerkiaren Nazioarteko Egunarekin bat[1]

Zu, lerro hauetan gelditu zaren hori, helduen mundura iritsita, fakultatean unibertsitate antzerki talde bat aurkitzea espero zenuen —akaso bibotedun gizonkote zintzo batek edo klasikoak maite dituen irakasle batek zuzendutako talde bat—, familia baten parte sentiaraziko zintuena, oholtza gainera igotzeko edo, paper eta lau taulaz eginiko eszenografia batekin, beste herri eta hiri batzuetara bidaiatzeko aukera emanen zizuna.

Baina errealitateak bizi gaitu. Halakorik existitu ahalko balitz ere, litekeena da gaur egun ez aurkitzea zaldikoa dantzan jartzeko prest dagoen inor. Gerta liteke zuzendaritzakoak ere ados egotea, antzerki talde bat izateak prestigioa ematen duelako, argazkietan ongi ematen duelako... Baina konforme egote hutsak ez du ezer aldatuko: mugimendua behar da.

Eta estatistika etsigarria da. Litekeena da behartutako isiltasun honen, zaratarik egin gabe eta elkar ikusi gabe ikasteko beharraren edota klaseei piper egin eta apunteak partekatzeko inor ez edukitzearen ondorioz, duela urtebete antzezlan bat edo bi ekoizteko gai ziren talde unibertsitario horietako asko desagertuta edo, are, hilzorian egotea.

Bada, orain zure txanda da —zurea, bai, berdin du nor zaren, atzerritarra, doktoregaia, erretiratutako irakaslea edo atezaina—. Egiteko gai zara. Gizakiak animalia sozial gisa duen onena da, absentziari aurre egite aldera, hutsuneak bete eta lerroak elkartzen dituela. Gauza on bat galtzen denean, helburu bihurtzen delako. Eta urrats gutxi

[1] Traducción cortesía de Ion Orzaiz Galarza, periodista.

batzuk izan edo arnasa luzeko helburu bat izan, lan egin behar dugu —Sanchis Sinisterrak esaten duen bezala— gerta daitekeena gerta dadin.

Irakurketa dramatizatu xume bat izan daiteke abiapuntua. Orain, bihar, berrogeita hamar urte barru, hitz hauek irakurtzeko unean; edozein dela ere antzerkiaz duzun ideia; edonolakoak izan arren zure ezjakintasunak, gabeziak eta zalantzak, zure sentsibilitate poetikoa: eman aukera. Zoriagatik edo gaizkiulertu batengatik besterik ez bada ere. Bihar, pasabide batean ager daiteke "Antzerkia egin nahi duzu?" dioen afixa. Agian zuk zintzilikatu duzu, konturatu gabe. Baina zuri ari zaizu. Agian konturatuko zara ez gaudela bakarrik. Batzuetan, nahikoa da pauso bakarra ematea, pertsona paregabe batzuk elkartu eta ideia hezurmamitu dezaten.

Baina, ze ideia? Antzerkiaren mugak lausoak dira, baina zure buruan zer edo zer ari da borborka. Hitz egiozu xuxurlaka, ez dezan ihes egin. Xehetasun txikienak irudika baditzakezu, egingarria den seinale. Izan bedi. Zuri esker, antzerkia berpiztu daiteke fakultatean, edozein ikasle egoitza edo erresidentziatan. Uste osoa dugu zugan.

Antzerkia bizi da gu guztiongan. Gora unibertsitate antzerkia.

Alberto Rizzo
Espainiako Unibertsitate
Antzerki Federazioko
presidentea